



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Gobernantza Departamentua



Open
Government
Partnership



KT2 Saiioa

Akta
2022.06.14

MARAKA

Aurkibidea

- 1. Parte hartzaileak eta helburuak.*
- 2. Saiora sarrera.*
- 3. Testuingurua eta mapatzearen azterketa.*
- 4. Tresnaren oinarriak finkatzen.*
- 5. Konpromiso Taldearen saioen plangintza.*
- 6. Saioaren itxiera.*

1. Parte-hartzaileak eta helburuak.

Bilera: Konpromiso Taldearen bigarren saioa, KT2.

Data: 2022.06.14

Helburuak:

Bigarren saioaren helburu nagusiak hurrengoak izan dira:

- Azken Konpromiso Taldeko saiotik orainarte egin den **mapatze-lana ezagutzera ematea.**
- **Mapatze lanean aurkitutako esperientziak aztertu eta ekarpenak egitea.**
- Arrakala digitalaren inguruko **tresnaren diseinua hastea**, honen oinarri eta helburuak zehaztuz, esperientzia inspiragarrietatik lortutako informazioa balioan jarritz.
- Hurrengo Konpromiso Taldearen **saioen ezaugarriak zehaztea.**
- **Mapatzea egituratzeko formen proposamenak aurkeztu eta hauen inguruan eztabaidatzea.**

1. Parte-hartzaileak eta helburuak.

Parte-hartzaileak:

Bilboko Udala

Amagoia Ibarondo

Gasteizko
Udala

Kotelo

Asociación
de Derecho
Colaborativo

Joanes Alkorta

Gazte
kontseilua

Maialen Olabe

Tolosako
Udala

Garikoitz Lekuona

Donostiako
Udala /
Donostia
Lagunkoia

Eva Salaberria

EMUN

Ainhoa Elices

Gipuzkoako
Foru Aldundia

Itziar Calvo
Mikel Pagola
Garbiñe Aramendi
Haritz Ugarte

Innobasque

Goizalde Atxutegi

Maraka

Garazi Camino
Joane Bilbao

2. Saiora sarrera.

- **Ongi etorria eman** eta **saioan zer egingo den azaldu** ondoren, bazkalosteko nagia eta lotsak kentzeko dinamika bat burutu da.
Parte-hartzaile bakoitzak ondorengo galderak erantzun behar izan ditu:
 - Zer bazkaldu dut?
 - Nola nator saiora?
- Dinamikaren amaieran bazkaririk onena aukeratu da.
- Parte-hartzaileek **jarrera positiboa** izan dute proiektuaren inguruan, nahiz eta arratsalde izatean gehienek **“lurreratzeko beharra”** zeukaten.
- Dinamikak bere helburua betetzeko balio izan du.

3. Testuingurua eta mapatzearen azterketa.

Testuinguruaren azalpena:

- Azken Konpomiso Taldeko saiotik **emandako pausoak azaldu dira, partaideak testuinguruan jarri.**

**Erabili den aurkezpena atxikitzen da.*

- **Arrakala digitalaren inguruko testuingurua** eta identifikatutako **arrakala motak azaldu** dira.

Mapatzearen azterketa eta proiektuen aplikagarritasuna:

- **Mapatze lanaren prozesua aurkeztu** da, aurreko saioan definitutakotik hasi eta nola iritsi den lan-taldea saioan aurkezten diren emaitzetara.
- Talde txikitan banatuta, 4 pertsonako 3 talde sortuz.
- Talde bakoitzak ondorengo materiala izan du lanerako:

- Dinamikarako berariaz prestatutako txantiloia.
- Arrakala digital motak jasotzen dituen eskema.
- Esperientzia inspiragarrian arrakala motaka antolatzen dituen eskema.
- Esperientzien fitxak.

- **Esperientzien mapa eta esperientzia inspiragarri bakoitzaren fitxak** taldeka aztertu dira, arrakala digitalaren eta identifikatutako ekimenen inguruko eztabaida sortuz.
- Ondoren, **esperientzia inspiragarriak taldeka banatu dira eta bakoitzak beraiei tokatutako ekintzen aplikagarritasuna aztertu** behar izan dute.
- Apuntatutako informazioarekin lagunduz **ideiak amankomunean jarri eta zalantzak argitu dira, eztabaida sortuz**, hurrengo orrialdean gehitzen dira aipatutako gaiak eta dokumentuaren amaieran txantiloiean jasotakoak.

3. Testuingurua eta mapatzearen azterketa

Eztabaidan landutako gaiak:

• Esperientzien inguruan:

- **Aurrera eramaten diren proiektu gehienek arazo zehatz bati ematen diote erantzuna**, arrakala digitalari sistemikoki erantzun behar zaio.
- **Proiektuak normalean perfil konkretuentzako pentsatuta daude**, ez gizarte osoarentzako.
- **Proiektuen eta arrakala moten arteko loturak irudikatzea falta da**. Azken batean, batak besteari eragiten dio.
- **Eskubidea multikanalitatea da**, ez digitalizazioa.
- **Zerbitzuen diseinuan herritarrek parte hartu behar dute, perfilen aniztasuna kontuan izanda** eta, batez ere, arrakala motek zuzenean eragiten dietenak integratuz.
- **Zerbitzuak diseinatzean irisgarritasunean adituak diren pertsonak integratu behar dira**.
- Arrakala digitalari aurrera egitean **“bloke emozionala” kontuan eduki behar da** ere. Adibidez, teknologia erabiltzen jakiteak bakardadea murriztu dezake eta, aldi berean, ez erabiltzen jakiteak pertsonak isolatu ditzake.
- **Arte-hizkuntza** interesgarria izan daiteke **irisgarritasunerako**.
- Partaideek **ez dute argi Lurraldeak Sortutako Arrakala Digitalak Euskal Herri mailan eragin handirik duen** ala ez.



4. Tresnaren oinarriak finkatzen.

- OGP III. Konpromisotik sortu behar den **tresnaren diseinuaren fasearekin hasteko dinamika** bat burutu da.
- Ariketan, talde txiki berak mantendu dira.
- Aurretiaz diseinatutako txantilo batzuk erabili dituzte zeinbat galderen inguruan hausnartu eta eztabaidatzeko.
- Galderak hauek izan dira:
 - **Zer?:** *Nola jaso dezakegu mapatzeko informazioa? Nolakoa imajinatzen dugu tresna? Zein izan daiteke bere erabilgarritasuna?*
 - **Helburuak:** *Zertarako behar dugu tresna? Zertan langundu behar digu?*
 - **Hartzaileak:** *Norentzat diseinatuko dugu? Nork erabili beharko luke?*
- Apuntatutako informazioarekin lagunduz **ideiak amankomunean jarri dira, eztabaida sortuz**, hurrengo orrialdean gehitzen dira aipatutako gaiak eta dokumentuaren amaieran txantiloiean jasotakoak.



4. Tresnaren oinarriak finkatzen.

Eztabaidan landutako gaiak:

• Idea orokorrak:

- **Material asko existitzen da** gai honen inguruan. Sortutako tresnak balio gehigarri bat izan beharko luke, baina existitzen den informaziotik abiatuta.
- **Tresnak herritarrei onura egiteko balio beharko luke, baina profesionali/administrazioari bideratuta izan beharko luke.**
- **Herritarrak erdian jarri** behar ditu. Arrakala motetan identifikatutako perfiletan arreta berezia jarritz.

• Tresnaren inguruko ideia-zaparrada:

- **Kontrasterako tresna bat izan behar da:** digitalizazio prozesu bat diseinatzerakoan bakoitzak bere buruari egin behar dizkion galderak batzen dituen.

- **Arazoak agerian uzten dituen galderen gida.**
- Administrazioak dagoeneko dituen **funtzionatzeko moduak zalantzan jarri** behar ditu.
- **Bideorri bat izan behar da, gida publiko bat.**
- **Tresnak bi zati izan behar ditu:** Alde batetik **markoaren azalpena** (marko juridikoari eta etika digitalari garrantzi handia emanez) eta, bestetik, **mapatzean identifikatutako esperientziak**, ekimen berriak sortzeko inspirazio modura.
- **Tresna Euskadiko Agenda Digitalaren barruan** egon beharko litzake.

5. Konpromiso Taldearen saioen plangintza

Saioen daten gogorarazpena eta ordutegien birplanteamendua

Konpromiso Taldearen saioen ordutegiak birplanteatu dira bigarren saiorako parte-hartzea dela eta. Hori dela eta, hurrengo saioak goizez egiten saiatuko dira. Kokapenaren inguruan, hurrengo saioa printzipioz Innobasquen egingo bada ere, parte-hartzearen arabera aldaketak eman ahal izango dira.

Datak:

- ~~KT1. Saioa: Apirilak 26~~ (*Gipuzkoako Foru Aldundia**)
- ~~KT2. Saioa: Ekainak 14~~ (*Gipuzkoako Foru Aldundia**)
- ~~KT3. Saioa: Irailak 27~~ (*Innobasque**)
- ~~KT4. Saioa: Azaroak 29~~ (*Innobasque**)
- ~~KT5. Saioa:~~ adostu da aurrerago definituko dela noiz egiten den.

Ordutegia:

- Hurrengo saioa **10:00-etatik 13:00-ra** izango da.

6. Saioaren itxiera

Saioaren itxiera, hurrengo pausoak eta balorazioa

- Itxieran hurrengo pausoen errepassoa egin da, mapatzean lortutako informazioa egituratzeko proposamenak aurkeztuz.
- **Saioaren baloraziorako dinamika** bat burutu da, banaka bete beharrezko fitxa bat osatuz.
 - Saioaren balorazio positiboa izan da, 1etik 6ra baloratuz batazbesteko 5 puntuko balorazioa izan du.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Gobernantza Departamentua



Open
Government
Partnership



OGP
LOCAL
Euskadi



innobasque
Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

Eskerrik asko!

3. Konpromisoaren idazkaritza teknikoa:

MARAKA

www.maraka.co
garazi@maraka.co